

04 ERANSKINA. COVID-19. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, INFORMATZEKO BETEBEHARRA ETA BAIMEN INFORMATUA ONARTZEKO DOKUMENTUA

Dokumentu honek jasotzen ditu parte hartzeko baldintzen, informatzeko betebeharren eta baimen informatuaren onarpena etaerakundeak garatu eta gurasoek zein legezko tutoreak ezagutu eta sinatu behar dituzten beste eredu batzuk.

XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

.....elkarrekin/erakundeak/udalak **Parte hartzeko baldintzak, informazioa emateko betebeharra eta baimen informatua onartzeko dokumentu** hau proposatzen du, gazteak aisia hezitzaileko jardueretara halako mailaz maila itzultzeak dakarren egoerarako.

Proposamen hori agintari eskudunak onartuko du, indarrean dagoen legeriaren barruan. Gainera, erakundeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Osasun-agintaritzak une bakoitzean zehazten dituen protokoloak edota jarraibideak aplikatzea.
- Dokumentu honetan azaldutako neurri orokorrak sartzea.
- Arintze-faseetarako aurreikusitako neurriak sartzea. Neurri horiek GAZTERIAREN ESPARRUKO AISIA HEZITZAILEKO JARDUERETAKO ESTRATEGIA ETA ARINTZE-FASEAK dokumentuan zehazten dira.
- Indarrean dagoen legeriaren beste alderdi egoki batzuk sartzea

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA ETA BAIMEN INFORMATUA ONARTZEA

.....elkarrekin/erakundeak/udalak antolatutako jardueran parte hartu nahi dutenek alde zuzenetik adieraziko dute, idatziz, parte hartzeko honako baldintza hauek onartzen dituztela:

1. Arrisku-taldeetako kide ez izatearen eta arrisku-taldeetako kide batekin ez bizitzearen erantzukizunpeko adierazpena¹.

Parte-hartzailea arrisku-talde bateko kide da honako kasuetan:

- Parte-hartzaileak ez du jardueran parte hartuko COVID-19rekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia bada (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).
- Parte-hartzaileak ez du jardueran parte hartuko baldin eta COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin kontaktu estuan egon bada (bizikideak, senideak eta sintomak zituen kasu positibo batekin leku berean gutxienez 15 minutuz eta 2 metro baino gutxiagoko distantzian egon diren pertsonak) edo COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin, sintomarik ez badago ere, pertsonen eta arteko distantzia gorde gabe leku berean egon bada, gutxienez 14 eguneko tartean. Epe horretan, segimendua egin behar du, gaixotasunaren zantzurik agertzen den jakiteko.
- Parte-hartzaileak jardueran parte har dezake, baina ez luke parte hartu behar, baldin eta zaugarria bada edo kaltebera den pertsona batekin bizi bada 60 urtetik gorakoa izateagatik, hipertentsio arteriala, diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia, immunoeskasiak, edo haurdun egoteagatik edo aurreko afekzio medikoak izateagatik. Parte hartzea erabakitzen bada, berak edo bere senideek duten arriskua jasota utziko du baimen informatuan.

¹ Koronabiruz berriari (COVID-19) buruzko galderak eta erantzunak. ZEIN DIRA ARRISKU-TALDEAK?
https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/20200317_Preguntas_respuestas_2019-nCoV.pdf

2. Osasun-egoera eta ez joateko arrazoa egunero jakinarazteko konpromisoa

- Parte-hartzaileek egunero jakinaraziko diote beren osasun-egoera beren azpitaldeko begirale arduradunari, mugikorraren edo beste bitartekoren baten bidez, jardueran hasi aurretik.
- Parte-hartzaileek beren azpitaldeko monitore arduradunari jakinaraziko dizkiote jarduerara ez joateko arrazoiak, mugikorraren bidez edo beste bitarteko baten bidez.
- Jardueran parte hartzen duen pertsonaren batek COVID-19rekin lotutako sintomatologia badu, ez da joango eta bere arduradunarekin (gerentea, zuzendaria, monitore, etab.) harremanetan jarriko da.

3. Derrigorrezko higie- eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentua onartzea (eranskina)

4. Baimen informatua sinatzea (eranskina)

5. Egoera sanitarioengatik, pertsonalengatik edo sozioekonomikoengatik kalteberak diren taldeek parte hartzeko baldintzak

- Desgaitasunen bat edo premia bereziren bat, ahultasun sozioekonomikoren bat, etab. duten pertsonekin, arreta espezifikoko neurriak hartuko dira: pertsona bakoitzeko begirale gehiago dituzten talde txikietan lan egitea edo begirale laguntzaileak jartzea, agindutako babes-ekipoak hornitzea, etab., jardueran haien erabateko parte-hartzea bermatzeko.
- Gurasoek edo legezko tutoreak egoera horren berri emango diote jardueraren ardura duen erakundeari, moldatzeko neurri egokiak hartu ahal izan ditzan.

GAZTEEN AISIA HEZITZAILEKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA ETA BAIMEN INFORMATUA ONARTZEKO EREDUA

Izen-abizenak:.....NAN

Interesatua bera interesatuaren (adingabea) guraso /legezko tutorea

Izen-abizenak:.....NAN

Talde kaltebera batekoa edo egokitzen-premia bereziak dituen: Bai Ez. Baiezkoa bada, zehaztu:

Jarduera garatzen duen entitatea:

Proposatutako jarduera:

Data:

Nire erantzukizunpean adierazten dut eskatzen dudala goiburuan ageri diren datuak dituen pertsonak (interesdunak)udalaren/erakundearen edo enpresaren jardueretan parte hartzea. Horretarako, zehatz-mehatz irakurri dut udalak/erakundeak edo enpresak emandako informazioa, eta parte hartzeko baldintzak onartzen ditut, nahitaezko higie- eta prebentzio-neurri pertsonalekin dudana konpromisoa adierazten dut, eta COVID-19arekin kutsatzeko aukeraren erantzukizun osoa nire gain hartzen dut.

(Markatu dagokion lekuan)

Arrisku-taldeetako kide ez izatearen eta arrisku-taldeetako kide batekin ez bizitzearen erantzukizunpeko adierazpena

<input type="checkbox"/>	Adierazten dut interesdunak betetzen dituela parte hartzeko baldintzak, informazioa emateko betebeharra eta baimen informatua onartzeko dokumentuan ezarritako onarpen-baldintzak, eta ez arrisku-talde bateko kidea.
<input type="checkbox"/>	Adierazten dut interesduna ez dela arrisku-talde bateko kide den inorekin bizi, edo, hala bada, bere erantzukizunpean parte hartzen duela jardueran.
<input type="checkbox"/>	Konpromisoa hartzen dut egunero jakinarazteko interesdunaren osasun-egoera eta, hala badagokio, interesduna jardueran ez agertzeko arrazoia (mugikorraren edo beste bitartekoren baten bidez).
COVID-19aren aurrean hartu beharreko derrigorrezko higie- eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentuaren onarpena	
<input type="checkbox"/>	Irakurri dut eta onartzen ditut derrigorrezko higie- eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentuan jasotako konpromisoak
Jarduera COVID-19ra egokitzeari buruz erakundeak emandako dokumentuak irakurri eta onartu izanaren adierazpena	
<input type="checkbox"/>	Adierazten dut erakunde arduradunak jarduera COVID-19ra egokitzeko egin duen protokoloa jaso eta irakurri dudala, eta, beraz, erabateko ezagutza dudala eta bat natorrela bertan proposatzen diren neurri eta prozedurekin.
<input type="checkbox"/>	Adierazten dut erakunde arduradunak larrialdietan edo kutsatzeko arriskua dagoenean jarduteko prestatu duen protokoloa jaso eta irakurri dudala.
COVID-19ari buruzko baimen informatua	
<input type="checkbox"/>	Adierazten dut, aurreko dokumentuetan jasotako informazioa jaso eta arretaz irakurri ondoren, badakidala zer arrisku dakartzan, bai beretzat, bai harekin bizi diren pertsonentzat, interesdunak jardueran parte hartzeak, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren testuinguruan; eta horren erantzukizuna nire gain hartzen dut.
Parte-hartzaileek nahiz haien senide edo tutoreek honako dokumentu hau irakurtzea gomendatzen da: <i>Preguntas y respuestas sobre el nuevo coronavirus (COVID-19)</i> . 2020ko martxoaren 17a. Osasun Alerta eta Larrialdien Koordinazio Zentroa. Osasun Ministerioa. https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/2020_05_11_Preguntas_respuestas_2019-nCoV-2.pdf	

.....,ko.....ren.....